CONTRATO DE VENTA DE RESIDUOS METÁLICOS (CHATARRA) PROCEDENTE DE LAS RECOGIDAS SELECTIVAS DE RESIDUOS DE LA MANCOMUNIDAD DE TOLOSALDEA	**TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAN HONDAKINEN GAIKAKO BILKETATIK DATORREN HONDAKIN METALIKOEN (TXATARRAREN) SALMENTA-KONTRATUA**
Pliego de cláusulas administrativas particulares	**Administrazio baldintza berezien agiria**
1.- ELEMENTOS DEL CONTRATO **1.- OBJETO DEL CONTRATO** 1.1 Venta de residuos metálicos (chatarra) procedente de las recogidas selectivas de residuos de los residuos urbanos y asimilables que la mancomunidad de Tolosaldea tiene implantados.	**I-KONTRATUAREN ELEMENTUAK** **1.KONTRATUAREN XEDEA** 1.1. Tolosaldeko Mankomunitateak ezarriak dituen hiri-hondakin eta asimilagarrietarako gaikako bilketetatik datorren hondakin metalikoen (txatarraren) salmenta.
2.- RÉGIMEN JURÍDICO 2.1. El contrato tendrá naturaleza de contrato privado, según el artículo 26.1.a) de la Ley de Contratos del Sector Público 9/2017 de 8 noviembre, por la que se trasponen al ordenamiento Jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo, 2014/23/UE y 2014/24/UE (LCSP) y se regirá por las siguientes normas: En cuanto a su preparación y adjudicación, se aplicarán las cláusulas contenidas en este pliego, y en su defecto, por las Secciones 1ª. y 2ª. del Capítulo I del Título I del Libro Segundo de la LCSP con carácter general, y por sus disposiciones de desarrollo, aplicándose supletoriamente las restantes normas de derecho administrativo o, en su caso, las normas de derecho privado, según corresponda por razón del sujeto o entidad contratante. Las resoluciones sobre la preparación y adjudicación del	**2.LEGE ARAUBIDEA** **2.1.** Kontratuak **kontratu pribatu** izaera izango du, 9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren 26.1.a) artikuluari jarraituz. Hark Espainiako ordenamendu juridikora daramatza Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/EU (SPKL) Zuzentarauak. Kontratuak honako arau hauei jarraituko die: Kontratua prestatzeari eta esleitzeari dagokionez, agiri honetan jasotako klausulak aplikatuko dira, eta, bestela, SPKLren Bigarren Liburuaren I. tituluko I. kapituluaren 1. eta 2. sekzioak eta haien garapen xedapenak. Horiek osatzeko zuzenbide administratiboko gainerako arauak edo, bestela, zuzenbide pribatukoak aplikatuko dira, subjektuagatik edo entitate kontratatzaileagatik dagozkionak. Kontratua prestatzeari eta esleitzeari buruzko ebazpenak egintza juridiko banagarriak dira, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzio

contrato son actos jurídicos separables y podrán ser impugnados ante el orden jurisdiccional contencioso administrativo.	ordenaren aurrean aurkaratu ahal izango dira.
En lo que respecta a sus efectos, modificación y extinción, estos contratos se regirán por el pliego de cláusulas administrativas, el pliego técnico y el derecho privado. En este caso, el orden jurisdiccional civil será el competente para resolver las controversias que surjan entre las partes en relación con los efectos, modificación y extinción del contrato.	Kontratuaren ondoreei, hura aldatzeari eta suntsitzeari dagokionez, kontratuak administrazio baldintza berezien agiriari, plegu teknikoei eta zuzenbide pribatuari jarraituko diote. Kasu honetan, jurisdikzio ordena zibilak izango du eskumena kontratuaren ondoreei, aldatzeari eta suntsitzeari buruz alderdiak izan ditzaketen eztabaidak ebazteko.
2.2 Es un contrato no sujeto a regulación armonizada.	**2.2** Arautze harmonikoaren ez dagokion kontratua da.
2.3. El órgano de contratación de la Mancomunidad ostenta, según el artículo 190 de la LCSP, la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de esta. Igualmente, el órgano de contratación ostenta las facultades de inspección de las actividades desarrolladas por los contratistas durante la ejecución del contrato.	**2.3** SPKLk 190. artikuluan xedatukoarekin bat, Mankomunitateko kontratazio organoak honako eskumenak ditu: administrazio kontratuak interpretatzea, betetzean sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoa dela eta aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztea, etetea, suntsiaraz dadin erabakitzea eta horren ondorioa zehaztea. Era berean, kontratazio organoak kontratistak kontratua gauzatzen duen bitartean garatzen diren jarduerak ikuskatzeko ahalmena du. Eskumen horiek SPKLk 191. artikuluan xedatutako prozedurari erreparatuz gauzatuko dira.
Estas prerrogativas se llevarán a cabo según el procedimiento establecido en el artículo 191 de la LCSP.	
3.- ÓRGANOS ADMINISTRATIVOS	**3. ADMINISTRAZIO ORGANOAK**
El órgano de contratación es la Asamblea de la Mancomunidad conforme a lo	Kontratazio organoa Mankomunitateko Batzarra da, Mankomunitateko Estatutuek

dispuesto en el artículo 23 m) de los Estatutos de la Mancomunidad.	23 m), artikuluan xedatutakoarekin bat.
4.- IMPORTE DEL CONTRATO: Precio de licitación y valor estimado **4.1. Precio de licitación:**	**4.KONTRATUAREN ZENBATEKOA: Lizitazio prezioa eta balio zenbatetsia.** **4.1 Kontratuaren prezioa**
El precio del contrato se entenderá como el precio a percibir por la Mancomunidad de Tolosaldea por la venta de los residuos metálicos, resultante de las recogidas selectivas de los contenedores ubicados en los Garbigunes de San Blas de Tolosa y Leizotz de Andoain.	Kontratuaren prezioa ulertuko da Tolosaldeko mankomunitateak jaso behar duen prezioa Tolosako San Blas garbigunean eta Andoaingo Leizotz garbigunean gaika bildutako hondakin metalikoen salmentaren prezioa.
El precio estará referenciado a la estadística de precios de residuos metálicos recuperado en España publicado por en la revista "metales y metalurgia" referenciado como "chatarras férricas, zona norte, inferiores, chapajos.	**Prezioa eta aldaketa dagokion hileko "Metales y Metalurgia" aldizkarian argitaratutako erreferentziazko azken prezioari erreparatu ostean zehaztuko dira, "Chatarras férricas, Zona Norte, Inferiores, Chapajos" erreferentziarekin.**
Los licitadores deberán presentar en su oferta, una mejora en euros/tonelada del precio de referencia	Eskaintzaileek bere eskaintzan erreferentziazko prezioaren hobekuntza aurkeztu beharko dute euro/tonako.
El precio comprenderá además, todos los gastos que se deban realizar para el cumplimiento de la prestación contratada, incluidos los generales, financieros, de seguros, tasas, fianzas, ensayos, transporte y desplazamientos, honorarios y dietas del personal técnico y auxiliar a su cargo, y los demás previstos en este pliego. Asimismo, se entenderán incluidos los gastos de publicación del anuncio en los boletines oficiales, conforme a las disposiciones vigentes y formalización del contrato. Ninguno de estos conceptos podrá luego repercutirse como concepto o partida independiente.	Horrez gain, kontratatutako prestazioa eskaintzeko gastu guztiak sartuko dira, honakoak barne: orokorrak, finantzarioak, aseguruei buruzkoak, tasak, fidantzak saiakuntzak, garraioa eta joan etorriak, bere kargura dituen teknikari eta langile osagarrien ordainsari eta dietak eta agirian aurrez ikusten diren gainerakoak. Era berean, indarreko xedapenekin bat iragarkia aldizkari ofizialetan argitaratzeari buruzko gastuak eta kontratua formalizatzearen ingurukoak sartutzat joko dira. Gero, halako kontzepturik ezingo da kontzeptu edo partida independente modura jasanarazi.
4.2. Fórmula para calcular el precio a abonar por el adjudicatario a la	**4.2. Esleipendunak mankomunitateari ordaindu beharreko kopurua**

mancomunidad:	**kalkulatzeko formula:**
La cantidad a abonar por el adjudicatario a la Mancomunidad se fijará en base a la siguiente fórmula:	Ondorengo formularen arabera ordainduko da:
PA=(PR + MP) x Q	OP=(EP + HP) x K
Donde,	Non,
PA: precio a abonar por el adjudicatario a la Mancomunidad, en euros. PR: Precio de referencia, en euros/tonelada, publicado en la revista "Metales y metalurgia" del mes correspondiente, referenciado como "Chatarras férricas, Zona Norte, Inferiores, Chapajos". MP: Mejora del precio de referencia ofertada por el adjudicatario, en euros/tonelada. Q: Cantidad de residuo de metal entregado en las instalaciones del adjudicatario, en toneladas.	OP: esleipendun enpresak Mankomunitateari ordaindu beharreko prezioa, E/tonatan. EP: Erreferentziazko prezioa, €/tonatan. Erreferentzia prezio hau "Metales y metalurgia" aldizkarian hilero argitaratzen da, "Chatarras férricas, Zona Norte, Inferiores, Chapajos" azpiatalean. HP: Esleipendunak erreferentzia prezioarekiko egindako hobekuntza prezioa, €/tonatan. K: Esleipendunaren instalaziotan entregatutako metalezko hondakin kopurua (tonatan).
Se fija un mínimo de licitación para la mejora del precio (MP) de 0,00€/tonelada, que podrá ser incrementado por los licitadores y dicho incremento será considerado mejora en el precio (MP).	Lizitazio gutxieneko kopurua ezartzen da prezioaren hobekuntzarako (HP) 0,00 euro/tonakoa, lizitatzaileengatik hobetu ahalko dena eta igoera hori prezioaren hobekuntza bezala kontsideratuko da (HP).
4.3. Valor estimado: De conformidad con la regla establecida para el cálculo del valor estimado del contrato en el artículo 101.2 de la LCSP, el valor estimado del contrato durante todo el periodo de vigencia es de 81.300 euros. Desglosado de la siguiente forma:	**4.3. Balio zenbatetsia** SPKL 101.2 artikuluan kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko zehazten duen arauaren arabera, balio zenbatetsia 81.300 eurotakoa da.
Sistema de determinación del precio: Precio unitario estimado en base al precio de venta de la chatarra en el último año 60 €/tonelada (IVA no incluido).	Prezioaren hautaketa sistema: Banakako prezio zenbatetsia, azken urteko txatarraren salmenta prezioan oinarrituta 60 €/tona (BEZ gabe).

El presupuesto base de licitación del contrato, por la prestación del servicio de recepción y gestión de residuos metálicos, para un periodo de 1 año asciende a la cantidad de 16.260€ (IVA no incluido), considerando las 271 toneladas recogidas en el año 2020.	Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, urte batez jasoketa eta kudeaketa zerbitzua emateagatik, 16.260€ da (BEZ gabe), 2020 urtean jasotako 271 tonak kontuan hartuta.
El valor estimado del contrato para una duración de 1 año y prórrogas anuales de hasta 4 años más (5 años en total) es de 81.300€ (IVA no incluido).	Urtebeteko eta beste 4 urtetako luzapeneko (guztira 5 urte) kontratuaren balio zenbatetsia 81.300€ da (BEZ gabe).
En las propuestas que formulen los licitadores se entenderán incluidos, a todos los efectos, no solo los precios de la contrata sino también las cuotas correspondientes a los tributos de toda índole que graven a los diversos conceptos. El impuesto sobre el valor añadido, no obstante, deberá figurar de manera desglosada en las ofertas, indicando tipo e importe aplicable al contrato conforme a su normativa reguladora.	Lizitatzaileek egindako proposamenetan, ondorio guztietarako, kontratuaren prezioak ez ezik, kontzeptu desberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergei dagozkien kuotak ere sartuta daudela ulertuko da. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko zergak banakatuta agertu beharko du eskaintzetan, eta kontratu mota eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, araudi erregulatzailearen arabera.
5.- REVISIÓN DE PRECIOS	**5. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**
De conformidad con la regla establecido en el artículo 8 del Real Decreto 55/2017, de 3 de febrero, por el que se desarrolla la Ley 2/2015, de 30 de marzo, de desindexación de la economía española, y el artículo 103 de la LCSP 2017, que regulan los requisitos para que proceda la revisión de precios en los contratos del sector público, a este contrato no resulta aplicable la citada revisión.	55/2017 Errege Dekretuak, otsailaren 3koak, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duenak, 8. artikuluan eta 2017ko SPKLk 130. artikuluan xedatutakoarekin bat, sektore publikoaren kontratuetan prezioak berraztertzeko baldintzak arautzen dira eta horiek kontuan hartuta, kontratu honi ez dagokio prezioak berraztertzea.
6.- DURACIÓN DEL CONTRATO	**6. KONTRATUAREN IRAUPENA**
6.1. La duración del Contrato será de 1 año.	**6.1** Kontratu honen iraupena 1 urtekoa izango da.

6.2. Se podrán efectuar 4 prórrogas de un año cada uno. En todo caso, de ser necesaria, la prórroga será obligatoria para el contratista, salvo que la Mancomunidad no lo hubiera denunciado con tres meses de antelación.	**6.2** 4 luzapen egin daitezke, urtebetekoak. Edozein kasutan, beharrezkoa bada, luzapena nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, salbu eta Mankomunitateak ez balio hiru hilabete lehenago jakinarazi.
II.- CONTRATACIÓN **7.- PROCEDIMIENTO, FORMA Y MEDIOS DE ADJUDICACIÓN** 7.1. El presente expediente de contratación se tramitará por procedimiento abierto, de acuerdo con el artículo 156 y siguientes de la LCSP, y por los artículos correspondientes del RGLCAP o disposición reglamentaria que la sustituya, mediante la valoración de los criterios que figuran en el punto 8.4. del presente pliego.	**II-KONTRATAZIOA** **7.ESLEITZEKO PROZEDURA, MODUA ETA BITARTEKOAK** **7.1** Kontratazioari buruzko espediente hau prozedura irekiz izapidetuko da, SPKLk 156. Artikuluan eta hurrengoetan eta HAKLAOk dagozkion artikuluetan eta ordezkatzen dituzten araubidezko xedapenetan xedatutakoaren arabera. Xede horrez, agiri honen 8.4 puntuan azaltzen diren irizpideak balioetsiko dira.
7.2. El contrato podrá concluirse con un sólo contratista.	**7.2** Kontratua kontratista bakarrarekin eslei daiteke.
7.3. Medios electrónicos: la presentación de ofertas se realizará por medios electrónicos a través de la aplicación denominada SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA ubicada en KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN/ PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI, SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA.	**7.3**. **Bitarteko elektronikoak**: eskaintzak bitarteko elektronikoak erabiliz aurketuko dira LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA izeneko aplikazioaren bitartez. Hori KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN / PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI, LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMAN kokatua dago.
7.3.1. Los requisitos para su utilización son los siguientes: a) Requisitos administrativos: • Disponer de un certificado digital cuyo uso esté autorizado por la Administración de la CAE a efectos de tramitación	**7.3.1** Erabiltzeko baldintzak ondorengoak dira: a) Administrazio baldintzak: -Ziurtagiri digitala izatea, izapide elektronikoetarako EAEko administrazioak erabiltzea baimendu ostean. Gaur egun ziurtgiri elektronikoak hurrengoak dira:

electrónica. Actualmente estos certificados electrónicos son los siguientes: ○ Izenpe (Entidad, Ciudadano, Representante de Entidad) ○ FNMT (Entidad, Ciudadano, Representante de Entidad) ○ Dni-e ○ Camerfirma (Entidad, Ciudadano, con estos certificados ha accedido muy poca gente a la aplicación). b) Requisitos técnicos: La información sobre los requisitos técnicos se encuentra disponible en el siguiente enlace: https://apps.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitarelectronicamente/es02/cambios configuracion.html	• Izenpe (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria) • FNMT (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria) • Dni-e • Camerfirma (erakundea, herritarra, ziurtagiri hauekin oso jende gutxi sartu da aplikazioan). b) Baldintza teknikoak: Baldintza teknikoei buruzko informazioa ondorengo estekan dago eskura: https://apps.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/cambios_configuracion.html
7.1.4. Servicio de soporte para resolver dudas o incidencias sobre licitación electrónica: 945016298	7.1.4 Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak ebazteko laguntza zerbitzua: 945016298.
7.1.5. Forma de presentación: a) Se deben anexar los documentos indicados en la cláusula 8 de este pliego en los respectivos documentos que, de conformidad con dicha cláusula, aparecen en la aplicación. b) Sólo se garantiza la lectura y tramitación de los documentos almacenados con las siguientes extensiones: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, y .7z c) Con el objetivo de minimizar la	7.1.5 Aurkezteko modua: a) Agiri honen 8. klausulan adierazitako dokumentuak erantsi behar dira, bakoitza aplikazioan azaltzen den dokumentuaren barruan, klausula horrekin bat. b) Bakarrik hurrengo luzapenekin gordetako dokumentuak irakurri eta izapidetzea bermatuko da: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, pdf, .rtf, .sxw, .sdw, .abw, .xml, jpg, .bmp, .tiff.,

incidencia que la presencia de virus pueda tener en la operatividad del sistema, se recomienda el envío de los documentos en los formatos .pdf, .rtf, .sxw, .jpg y .tiff

d) Se entenderá recibida la oferta en el plazo de presentación si se inicia la transmisión dentro de él y finaliza con éxito.

8.- PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES

8.1. Empresas licitadoras

8.1.1. Podrán presentar proposiciones las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras que tengan plena capacidad de obrar, que no estén incursas en ninguna prohibición de contratar, y acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional.

En el caso de personas jurídicas dominantes de un grupo de sociedades, se podrá tener en cuenta a las sociedades pertenecientes al grupo, a efectos de acreditación de la solvencia económica, financiera y técnica o profesional de la persona jurídica dominante, siempre y cuando ésta acredite que tiene efectivamente a su disposición los medios de dichas sociedades necesarios para la ejecución de los contratos.

8.1.2. Podrán, asimismo, presentar proposiciones las uniones temporales de empresas que se constituyan temporalmente al efecto de conformidad

.zip, eta .7z

c) Sistemaren eraginkortasunean birusek izan ditzaketen eragina minimizatzeko, dokumentuak honako fomatuetan bidaltzea gomendatzen da: .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff.

d) Aurkezpen epearen barruan eskaintza aurkeztutzat joko da, bertan transmisioa hasi eta arrakastaz amaitzen bada.

8.PROPOSAMENAK AURKEZTEA

8.1. Enpresa eskaintzaileak

8.1.1 Proposamenak aurkez ditzakete pertsona natural edo juridikoek, Espainiakoek edo atzerrikoek, jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekuetan murgilduak ez badaude eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badituzte.

Sozietateen taldeko pertsona juridiko nagusien kasuan, taldearen barruan dauden sozietateak kontuan har daitezke pertsona nagusiaren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzeko, betiere horrek ziurtatzen badu kontratua gauzatzeko beharrezkoak izanik, sozietate horrek bitartekoak egiaz eskura dituela.

8.1.2 Era berean, proposamenak aldi baterako enpresa elkarteek aurkez ditzakete, xede horrez aldi baterako eratzen badira, SPKLk 69. artikuluan xedatutakoarekin bat.

con el artículo 69 de la LCSP. Cada una de las empresas que componen la agrupación deberán acreditar su capacidad de obrar y la solvencia económica, financiera y técnica o profesional, con la presentación de la documentación a que hacen referencia las cláusulas siguientes, debiendo indicar en documento privado nombres y circunstancias de las empresas que la suscriban, la participación de a cada una de ellas y la persona o entidad que durante la vigencia del contrato ha de ostentar la plena representación frente a la administración, con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones que se deriven del contrato, y que asumen el compromiso de constituirse en UTE: El citado documento deberá estar firmado por quienes representen a cada una de las empresas componentes de la unión. Sólo si el contrato se adjudica a la unión temporal se deberá formalizar la misma en escritura pública.	Elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatu beharko ditu eta, horretarako, hurrengo klausulan aipatzen diren dokumentuak aurkeztuko ditu. Horrez gain, dokumentu pribatuan sinatzen duten enpresen izenak eta egoerak adieraziko dira, baita bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren indarraldian administrazioaren aurrean ordezkaritza osoa izango duen pertsona edo erakundearen izena ere, kontratuan zehar eskubideak erabili eta eskakizunak betetzeko ahalorde askietsiarekin. Azkenik ABEEn eratzeko konpromisoa onartuko dute. Aipatu dokumentua aldi baterako elkartean enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuko du. Bakarrik kontratua aldi baterako elkarteari esleitzen bazaio, eskritura publikoan formalizatu beharko da.
8.1.3. Cada licitador no podrá presentar más que una sola proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en agrupación temporal con otras empresas o figurar en más de una unión temporal si lo ha hecho individualmente. La contravención de este principio dará lugar automáticamente a la no admisión de todas las que hubiera suscrito.	**8.1.3** Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Halaber, ezingo du sinatu proposamenik beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartean edo ez da aldi baterako enpresen elkarte batean baino gehiagotan azalduko, banaka egin badu. Printzipio hori urratuz gero, automatikoki sinatu dituen guztiak baztertuko dira.
8.1.4. La presentación de proposiciones presume la aceptación incondicional de las cláusulas de este pliego y del resto de los documentos contractuales, sin salvedad alguna, así como la declaración responsable de la exactitud de todos los datos presentados y de que reúne todas y cada una de las condiciones exigidas para la contratación del servicio.	**8.1.4** Proposamenak aurkezten direnean, agiri honetako klausulak eta gainerako kontratu dokumentuetan daudenak oso-osorik onartuko dira, salbuespenik gabe. Gauza bera gertatuko da aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta zerbitzua kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituela azaltzen duen adierazpen arduratsuarekin.

8.2. Contenido de las proposiciones y plazo de presentación.	**8.2. Proposamenen edukia eta aurkezpen epea.**
Para participar en la presente licitación, se deberán presentar dos documentos, en formato digital tal y como se menciona en el apartado anterior con la documentación que luego se indicará, especificando en cada uno de ellos la licitación a los que concurre, denominación de la empresa, nombre y apellidos de quien firme la proposición, y el carácter con que lo hace, todo ello de forma legible. Todos los documentos deberán estar necesariamente firmados por quien presente la oferta o persona que le represente, siguiendo los pasos establecidos en la plataforma digital.	Lizitazio honetan parte hartzeko, bi dokumentu aurkeztu beharko dira formato digitalean, aurreko atalean azaldu den moduan. Dokumentazioa aurrerago azalduko da, baino bakoitzean lizitazioa adieraziko da, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen abizen eta egiteko ahalmenarekin batera. Hori guztia modu ulergarrian aipatuko da. Dokumentuak halabeharrez eskaintza sinatzen duen pertsonak edo ordezkatzen duen pertsonak sinatuko ditu, plataforma digitalean zehaztutako urratsei jarraiki.
Las proposiciones se deberán entregar en un plazo de 15 días, siguiendo lo establecido en el artículo 156.6.	Proposamenak 15 egunetako epean aurkeztuko dira iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, SPKLren 156.6 artikuluaren arabera.
8.3. Contenido de los documentos	**8.3. Dokumentuen edukia**
8.3.1. "Documento 1" Capacidad para contratar a) Las proposiciones deberán ir acompañadas, según el artículo 140 de la LCSP de una declaración responsable que se ajustará al formulario de documento europeo único de contratación (DEUC). Tal declaración deberá cumplimentarse siguiendo las indicaciones del anexo 1, y deberá estar firmada y con la correspondiente identificación, en la que el licitador ponga de manifiesto lo siguiente: 1.- Que la sociedad está válidamente constituida y que conforme a su objeto social puede presentarse a la licitación, así como que el firmante de la	**8.3.1. "1.dokumentua" Kontratatzeko gaitasuna** a) SPKLk 140. artikuluan xedatutakoaren babesean, proposamenak aurkezten direnean erantzukizunpeko adierazpena erantsiko da eta kontrataziorako europar dokumentu bakarrari (KEDB) buruzko inprimakiarekin bat etorriko da. Adierazpena betetzeko 1. eranskineko azalpenak kontuan hartu beharko dira. Gainera, sinatuko da eta dagokion identifikazioa izango du. Ildo horri eutsiz, eskaintzaileak hurrengoak aipatuko ditu: 1. Sozietatea balioz eratuta dago eta sozietatearen xedearen arabera lizitazioan parte har dezake.

declaración ostenta la debida representación para la presentación de la proposición y de aquella.	Gainera, adierazpenaren sinatzaileak proposamena aurkeztu eta enpresa bera ordezkatzeko nahikoa ordezkaritza du.
2.- Que cumple los requisitos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional exigidos, en las condiciones que establezca el pliego de conformidad con el formulario normalizado del documento europeo único de contratación a que se refiere el artículo siguiente.	2. Eskatutakoari jarraiki, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren baldintzak betetzen ditu agirian xedatutako baldintzetan, kontrataziorako europar dokumentu bakarrari buruzko inprimaki normalizatuarekin bat. Izan ere, hori hurrengo artikuluan aipatzen da.
3.- Que no está incursa en prohibición de contratar por si misma ni por extensión como consecuencia de la aplicación del artículo 71.3 de esta Ley.	3. Berez eta hedapenez, legeak 71.3 artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz, kontratatzeko debekurik ez du.
4.- La designación de una dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones, que deberá ser "habilitada" de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional decimoquinta, de la LCSP.	4. Jakinarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea zehazten du eta SPKLk hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraiki "gaitu" beharko da.
En todos los supuestos en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, se aportará una declaración responsable por cada empresa participante.	Enpresaburuek aldi baterako elkartean multzokatuak lehiatzen duten ustezko guztietan, enpresa partaideko zinpeko adierazpen bana aurkeztuko da.
En el caso de que la empresa licitadora proponga subcontratar alguna actividad, deberá indicar en el DEUC, la actividad que se pretenda subcontratar, a que contratista y en que porcentaje sobre el precio del contrato (sin iva).	Enpresa eskaintzaileak jardueraren bat azpikontratatzea proposatzen badu, KEDBn adierazi beharko du azpikontratatu nahi duen jarduera, norekin kontratatuko duen eta kontratuaren prezioaren gainean suposatzen duen ehunekoa (BEZik gabe).
El momento decisivo para apreciar la concurrencia de los requisitos de capacidad y solvencia exigidos para contratar con la administración será el de finalización del plazo de presentación de	Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren gaitasunaren eta kaudimenaren baldintzak elkartzen direla antzemateko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean gertatuko da.

proposiciones. La empresa licitadora a cuyo favor recaiga la propuesta de adjudicación, deberá acreditar ante el órgano de contratación, previamente a la adjudicación del contrato, la posesión y validez de los documentos exigidos, según lo establecido en punto 10.1.	Enpresa eskaintzailearen alde esleipen proposamena egiten bada, kontratua **esleitu baino lehen kontratazio organoaren aurrean egiaztatu** beharko du eskatutako dokumentuak dituela eta baliozkoak direla, agiri honek 10.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.
8.3.2. "Documento 2": Proposición económica, documentación relativa a los criterios de valoración evaluables automáticamente.	**8.3.2. "2. Dokumentua": proposamen ekonomikoa, automatikoki ebalua daitezkeen balioztapen irizpideei buruzko dokumentazioa.**
Este documento deberá contener una sola proposición redactada conforme al modelo que figura como anexo 3 y firmada por la persona o empresa licitadora o su representante, sin el Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA).	Dokumentu honetan gehituko da, proposamen bakarra, 3. eranskinean agertzen den ereduarekin bat idatzikoa. Pertsona edo enpresa eskaintzaileak edo bere ordezkariak sinatu beharko du eta Balio erantsiaren gaineko zerga /BEZ), kanpo utziko da.
8.4. Criterios de adjudicación: Criterios a valorar mediante fórmula	**8.4 Esleipen irizpideak: Formula bitartez balioetsiko den irizpidea**
Se tendrán en cuenta únicamente el siguiente criterio de valoración automática:	Bakarrik balioztapen automatikorako hurrengo irizpidea kontuan hartuko dira:
Criterio 1.- La cuantía de la proposición económica. Se puntuará sobre 100 puntos.	1.irizpidea.- Proposamen ekonomikoaren zenbatekoa. Gehienez 100 puntu emango dira.
<u>CRITERIO 1 Objetivo.- Cuantía de la proposición económica.</u>	<u>1.IRIZPIDEA Objektiboa.- Proposamen ekonomikoaren zenbatekoa.</u>
Se valorarán las propuestas que desde el punto de vista económico resulten más ventajosas. Por lo que, las proposiciones serán valoradas atendiendo exclusivamente a las mejoras de los precios de referencia ofertados (MP), en euros/tonelada.	Ekonomiaren ikuspegitik proposamen abantailatsuenak balioetsiko dira. Proposamen ekonomikoak haztatzeko, eskainitako erreferentzia prezioen (EP) hobekuntzak soilik hartuko dira kontuan, eurotan /tona bakoitzeko.
La oferta (MP) más alta obtendrá 100	Eskaintza (HP) altuenak 100 puntu lortuko

puntos y para el resto la valoración será la siguiente: Valoración A: (Oferta A / Oferta más alta) x 100 **8.5. Notas aclaratorias sobre presentación de la documentación** 8.5.1. Las empresas licitadoras designarán en su oferta aquella documentación que consideren confidencial, según el anexo 2, la cual no podrá ser divulgada por el órgano de contratación. Esta circunstancia deberá además reflejarse claramente en el propio documento señalado como tal. Los documentos y datos presentados por las empresas licitadoras pueden ser considerados de carácter confidencial cuando su difusión a terceras partes pueda ser contraria a sus intereses comerciales legítimos, perjudicar la leal competencia entre las empresas del sector o bien estén comprendidas en las prohibiciones establecidas en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. De no aportarse esta declaración podrá considerarse, en función de sus características, que todos o alguno de los documentos o datos presentados carecen de dicho carácter confidencial. 8.5.2. La falsedad de las datos y circunstancias presentados por la empresa puede ser causa de resolución del contrato, en su caso, por incumplimiento imputable a la persona o empresa adjudicataria, con pérdida de la fianza definitiva constituida o , en su caso, indemnización por valor de aquella, si no se ha constituido.	ditu, eta gainerakoentzat balorazioa hau izango da: A Balorazioa: (A eskaintza / eskaintza altuena) x100 **8.5 Dokumentazioa aurkezteari buruzko azalpen oharrak.** **8.5.1** Enpresa eskaintzaileek beren eskaintzan konfidentzialtzat jotzen duten dokumentazioa izendatuko dute, 2. Eranskinaren arabera, eta, ondorioz, kontratazio organoak ezingo du zabaldu. Gainera, egoera hori argi eta garbi azalduko da hala jotako dokumentuan. Enpresa eskaintzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke hirugarrenei zabalduz gero, legezko merkataritza interesen kontra badoaz, sektoreko enpresen artean lehia zintzoa kaltetzen bada edo 3/2018 Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalen bermerako, abenduaren 5eko Lege Organikoan xedatutako debekuetan sartzen badira. Adierazpen hori aurkezten ez bada, ezaugarrien arabera, aurkeztutako dokumentu edo datu guztiak ala batzuk konfidentzialak ez direla definituko da. **8.5.2** Enpresak aurkeztutako datuak eta gorabeherak faltsuak badira, kontratua suntsiaraz daiteke, hala badagokio, pertsona edo enpresa esleipendunari egotz dakiokeen ez-betetzeagatik. Halakoetan, osatutako behin betiko fidantza galduko da ala, bidezkoa bada, osatu ez delako horren balioaz kalte ordaina ordaindu beharko da.

8.5.3. La no presentación de alguno de los documentos exigidos o su presentación en forma distinta a la requerida dará lugar a la no admisión definitiva del mismo.	**8.5.3.** Eskatutako dokumenturen bat aurkezten ez bada edo eskatutakoarekiko modu desberdinean eginez gero, behin betiko ez da onartuko.
8.5.4. No se aceptarán aquellas proposiciones que: • Tengan contradicciones mayores, omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta. • No se ajusten a lo señalado en el pliego de prescripciones técnicas y en el pliego de cláusulas administrativas. • Aquellas que carezcan de concordancia con la documentación examinada y admitida. • Excedan del tipo máximo de licitación. • Comporten error manifiesto en el importe del remate. • Las que varíen substancialmente el modelo de proposición establecido que figura como anexo 3 a este pliego.	**8.5.4** Hurrengo proposamenak ez dira onartuko: • Kontraesan garrantzitsuak, ahazteak, akatsak edo urradurak dituztenak, horien ondorioz administrazioak eskaintza kontuan hartzeko oinarrizkotzat jotzen duena argi eta garbi ezin bada ezagutu. • Baldintza teknikoen agirian eta administrazio baldintzen agirian aipatutakora egokitzen ez direnak. • Aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak. • Lizitazioaren gehieneko oinarria gainditzen dutenak. • Bukatze zenbatekoan akats argia dutenak. • Agiri honetan 3. eranskin bezala xedatutako proposamen eredua nabarmenki aldatzen dutenak.
8.5.5. Si la proposición la realizan varias empresas, con el compromiso de constituirse en Unión Temporal de Empresas, el documento 2 deberá estar firmado por la persona representante de cada una de ellas.	**8.5.5**. Proposamena hainbat enpresak egiten badu eta horiek aldi baterako enpresen elkartean eratzeko konpromisoa badute, 2. dokumentua enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuko du.
8.6. Consulta sobre la documentación y pliegos	**8.6. Dokumentazio eta agiriei buruzko kontsultak**
8.6.1. Según lo establecido en el artículo	**8.6.1**. SPKLk 138.3 artikuluan

138.3 de la LCSP la Mancomunidad proporcionará a los interesados, a más tardar, 3 días antes de que finalice el plazo para la presentación de ofertas, aquella información adicional que soliciten sobre los pliegos y demás documentación, siempre que la hubieren pedido al menos 5 días antes de la finalización del plazo.	xedatutakoaren arabera, Mankomunitateak interesdunei beranduenen eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 3 egun lehenago agiri eta gainerako dokumentazioari buruz eskatzen duten informazio osagarria eskuratuko die, betiere epea amaitu baino 5 egun lehenago eskatu badute.
8.6.2. En el caso, en que lo solicitado sean aclaraciones a lo establecido en los Pliegos de Prescripciones Técnicas Administrativas Particulares o resto de documentación, las respuestas tendrán carácter vinculante y se harán públicas en el Perfil del contratante.	**8.6.2.** Eskatutakoa baldintza teknikoen eta administrazio baldintza berezien agirietan edo gainerako dokumentazioan xedatutako zerbait argitzea bada, erantzunak lotesleak izango dira eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.
9.- APERTURA DE PROPOSICIONES	**9.PROPOSAMENAK IREKITZEA**
9.1. La mesa de contratación examinará con carácter previo al contenido del documento 1 y calificará la declaración presentad. Si observara defectos materiales en la documentación presentada lo comunicará a personas o empresas interesadas y concederá un plazo no superior a 3 días hábiles para su subsanación.	**9.1** Kontratazio mahaiak aldez aurretik 1. dokumentuaren edukia aztertuko du eta aurkeztutako adierazpena kalifikatuko du. Aurkeztutako dokumentazioan akats materialak antzematen baditu, pertsona edo enpresa interesdunei jakinaraziko dizkie eta gehienez 3 egun baliodun emango dizkie horiek zuzentzeko.
9.2. Una vez calificada la DEUC a que se refiere el artículo 140 de la LCSP y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones de la documentación presentada, determinará las empresas que se ajustan a los criterios de selección de las mismas a que hace referencia el artículo 11 del EGLCAP, con pronunciamiento expreso sobre las admitidas a la licitación, las rechazadas y sobre las causas de su rechazo.	**9.2.** SPKLk 140. artikuluan aipatzen duen KEDB kalifikatu eta aurkeztutako dokumentazioan akatsak edo ahazteak zuzendu ondoren, HAKLAOk 11. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, hautespen irizpideak betetzen dituzten enpresak zehaztuko ditu eta lizitazioan onartutakoak, baztertutakoak eta baztertze arrazoiak berariaz adieraziko ditu.
La no presentación de alguno de los documentos exigidos o su presentación en forma distinta a la requerida dará	Eskatutako dokumenturen bat aurkezten ez bada edo eskatutakoarekiko modu desberdinean eginez gero, kontratazio

lugar a la no admisión definitiva por la mesa de contratación.	mahaiak behin betiko ez du onartuko.
9.3. En el lugar, día y hora oportunamente señalados, en acto público se procederá a la apertura de las proposiciones económicas contenidas en el documento "2". La mesa de contratación podrá solicitar los informes técnicos que considere necesarios y evaluará las proposiciones mediante los criterios de valoración que se recogen.	**9.3.** Behar bezala adierazitako tokian, egunean eta orduan, egintza publikoan, "2" dokumentuan dauden proposamen ekonomikoak irekitzeari ekingo zaio. Kontratazio mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eska ditzake eta jasotzen diren balioztapen irizpideak kontuan hartuta ebaluatuko ditu proposamenak.
